

c.1890

Zezenak -eta pelota- dira



Hor daukazue taila xume bi 2018ko abenduan erosi genituenak enkante batean. Zortea izan genuen parte hartu zuten bakarrak izan baikin horrela prezio hobean lortuz. Ez dauka ez sinadurarik ez datarik, beraz ez dugu ezagutzen ez autorea ezta noiz egin zen ere. Hala ere, irudikatzen den ingurua XIX. mende amaierakoa da, plazako elizape berriak eta frontoi zaharrak 1884-1896 artean kokatzen ditu.

Taila xumeak direla esan dugu, baina material eta teknika hori erabiliz ditugun bakarrak dira. Gainera balio historiko

ukaezina dute. Lekeitioko plaza, batez ere jaietan, aisialdirako leku aproposa zen; eliza, udaletxe, frontoi eta alamedak espazio zabala osatzen zuten. Are gehiago portu berria egin zenean eta hondartzari espazioa irabazi zitzaionean.

Taila batean pelota partidua azaltzen da Lekeitioko plazako frontoian, publikoz gainezka dago, batzuk jesarrita, beste batzuk tente, emakume batzuk banku batera igota hobeto ikusteko, mutikoren bat matxangoen antzera eskegita behar ez den lekuan... Ezkerraldean eliza elizape berriekin baina egileak ez du behar

bezala biratu, perspektiba aldetik makalada da.

Beste tailan sokamuturra irudikatzen da. Hau ere Lekeitioko plazan gertatzen da, atzealde bera du baina eszena aldatzen da. Zezena da protagonista, soka batez kolpeta egon arren plazako jaun eta jabe bihurtu da, baliente gutxi batzuk zezenaren inguruan dabilta, bat toreatzeko prest..., gehienak urrun, babesean, espektakulua ikusten. Perspektibari dagokionez edo ez daki edo ez ditu arauak jarraitu nahi. Guztiarekin ere, beren enkantua dute!



Lekeitio plaza, XIX mende amaiera. Egile ezezaguna. Lekeitio Udal Artxiboa

